

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

ELGETAKO UDALA

Iragarkia

Udal Osoko Bilkurak, 2017ko ekainaren 27ko batzarrean hasierako onarpena eman zion «Elgetatik kanpo euskara ikasteagatik diru-laguntzak jasotzen dituen Ordenantzari».

Jendaurreko epea amaitu da, beraren aurka inongo alegaziorik izan gabe, beraz Ordenantza hau behin-betiko izaeraz onartuta geratu da, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 70.2 artikulua dioenaren arabera, bere eduki osoa argitaratzen da, adieraziz Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den biharamunetik sartuko dela indarrean.

Administrazio bidean behin betikoa den akordio honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salaren aurrean, iragarkia argitaratzen den hurrengo egunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

Elgeta, 2017ko abuztuaren 12a.—Iraitz Lazkano Garitaonandia, alkatea. (6268)

Elgetatik kanpo euskara ikasteagatik diru-laguntzak jasotzen dituen Ordenantza.

1. *Diru-laguntzaren xedea.*

Diru-laguntza honen xedea da Elgetako bizilagunak euskara ikastaroetan parte hartzera bultzatzea. Hori dela-eta, Elgetako Udalak diru laguntzak emango dizkie herritik kanpo euskara ikasten ari diren ikasleei.

2. *Onuradunak.*

Diru-laguntza honen onuradunak izango dira, Elgetatik kanpo, euskaltegiren batean euskaraz ikasten ari diren herritarak.

3. *Bete beharreko baldintzak.*

Diru-laguntza eskuratu nahi dutenek honako betebeharrak hauek bete beharko dituzte:

- Elgetan erroldatuta egotea.
- 16 urte beteta edukitzea.
- Elgetatik kanpo euskara ikastaro batean parte hartzea.
- Ikastaroa bukatzea eta gutxienezko aprobetxamendua izatea.
- Gutxienez, % 80ko asistentzia izatea.
- Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluko 2. eta 3. ataletan ezarritako kausaren baten pean ez egotea.
- Betebehar fiskalak, Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak eta Elgetako Udalarekikoak egunean izatea.

Diru-laguntza hauek bateragarriak dira beste administrazio edo erakunde publiko edo pribaturen batek emandako diru-laguntzekin. Nolanahi ere, ez da gain-finantzaketarik izango, eta hala gertatzen bada, diru laguntza murriztu egingo da, dagokion gehienezko mugaraino.

AYUNTAMIENTO DE ELGETA

Anuncio

El Pleno Municipal, en sesión celebrada el 27 de junio de 2017, acordó aprobar inicialmente la «Ordenanza reguladora de la concesión de ayudas económicas para el aprendizaje del euskara fuera del término municipal de Elgeta».

La ordenanza estuvo expuesta al público durante 30 días, y no habiéndose presentado reclamación u observación alguna, ha sido elevada a definitiva, de conformidad con lo dispuesto en el acuerdo del Pleno Municipal, lo que se hace público en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, así como el texto definitivo de la Ordenanza que es el que se adjunta a este anuncio.

Contra el presente acuerdo, que es definitivo en vía administrativa, podrá interponerse en el plazo de dos meses contados desde el día siguiente a la publicación, recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

Elgeta, a 12 de agosto de 2017.—El alcalde, Iraitz Lazkano Garitaonandia. (6268)

Ordenanza reguladora de la concesión de ayudas económicas para el aprendizaje del euskara fuera del término municipal de Elgeta.

1. *Objeto de las ayudas.*

Es objeto de las presentes ayudas promocionar que los habitantes de Elgeta tomen parte en los cursos de aprendizaje de euskara. Para ello, el Ayuntamiento de Elgeta otorgará ayudas económicas a las personas que se encuentren estudiando euskara fuera del término municipal de Elgeta.

2. *Beneficiarios.*

Serán beneficiarios de las ayudas aquellas personas vecinas de Elgeta que se encuentren aprendiendo euskara en algún euskaltegi de fuera del término municipal de Elgeta.

3. *Requisitos a cumplir.*

Los solicitantes de las ayudas deberán cumplir todos y cada uno de los siguientes requisitos:

- Encontrarse empadronado en Elgeta.
- Tener cumplidos los 16 años de edad.
- Tomar parte en un curso para aprender euskara fuera del término municipal de Elgeta.
- Finalizar el curso con un mínimo de aprovechamiento.
- Acreditar un mínimo de asistencia del 80 %.
- No hallarse incurso en alguna de las causas previstas en los artículos 13.2 y 3 de la Ley 38/2003 de 17 de noviembre.
- Hallarse al corriente en las obligaciones fiscales, de Seguridad Social y ante el Ayuntamiento de Elgeta.

Las presentes ayudas son compatibles con otras que puedan otorgar otras administraciones o instituciones públicas o privadas. De todas formas, no se aceptará la sobre financiación, y en caso de que ello ocurra, se procederá a la minoración de la ayuda otorgada hasta el límite máximo del mismo.

4. *Eskaerak eta beharrezko dokumentazioa aurkeztea.*

Diru laguntza eskaerak Elgetako Udaleko Harrera Zerbitzu (Mendizaleen plaza, 20690 Elgeta) aurkeztu ahal izango dira deialdia kaleratzen den momentutik aurrera. Eskaerarekin batera honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

- Eskaera orria, behar bezala beteta.
- Bestelako administrazioei eta erakunde publiko edo pribatuei egindako diru-laguntza eskaeren zein jadanik emandako diru-laguntzen gaineko zinpeko aitortpena.
- Nortasun Agiriaren kopia.
- Matrikularen kopia.
- Ikastaroa egin den euskaltegiak egindako ziurtagiria. Bertan honako gorabehera hauek zehaztu beharko dira: eskatzaileak ikastaroa bukatu eta gutxieneko aprobetxamendua izan duen ala ez, eta asistentzia zenbatekoa (ehunekotan) izan den.

Ofizios egiaztatuko da Udalarekiko betebeharrak betetzen direla.

Udalak beharrezkoa irizten dion informazio osagarria eskatu ahal izango die eskatzaileei eskabidean adierazitakoa egia dela ziurtatzeko. Diru-laguntza eskaera aurkezteaz bat, eskatzaileak deialdian ezarritako baldintza guztiak betetzen dituela, eta oinarri hauek osotasunean onartzen dituela aitortuko du.

Atal honetan aipatutako dokumentu edo egiaztagiriren bat aurkeztu ezean, eskatzaileari bost eguneko epea emango zaio aurkeztutako dokumentazioa zuzen edo osa dezan. Hori horrela egin ezean, eskaerari uko egiten diola uste izango da, eta beste tramiterik egin gabe, eskaera artxibatu egingo da.

5. *Diru laguntza emateko prozedura.*

Diru-laguntzak banatzeko euskara batzordeak aztertuko ditu eskaerak, honetarako epea amaitzen den eguna pasa ostean deituko den euskara batzordean. Beharrezko dokumentazioa aurkeztu ondoren, egoki bada, diru laguntza jasoko dute eskatzaileek.

6. *Diru-laguntzaren zenbatekoa.*

Elgetako Udalak euskara ikasteagatik ematen duen diru laguntzaren zenbatekoa, horretara bideratutako aurrekontu partidan dagoen kopurua izango da. Diru laguntza onuradun guztien artean, egiaztatu duten gastuen zenbateko osoaren banaketa proportzionalaren arabera egingo da. Emango den laguntza inoiz ez da izango zenbateko osoaren % 80a baino handiagoa.

7. *Diru laguntza aldatzea.*

Diru laguntza ematerako orduan kontuan izan ohi diren baldintzak aldatzen badira, eta beste erakunde publiko edo pribatu batzuetatik norgehiagokaren bidez laguntzak jasotzen badira, emakidari buruzko erabakia aldatu ahal izango da.

8. *Oinarriak ez betetzea.*

Onuradunak oinarri hauetan ezarritako baldintzetako bat bete ez duela egiaztatzen bada, diru laguntza osoa edo diru laguntzaren zati bat kendu ahal izango zaio; horretara heldu baino lehen, interesatuari entzunaldia egiteko aukera eskainiko zaio, eta hala badagokio, jasotako zenbatekoa itzultzeko erabakia ere hartuko da.

9. *Araubide osagarria.*

Oinarri hauetan berariaz zehaztu ez diren kasuetarako Diru Laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra izango da kontuan.

Azken Xedapena.

Ordenantza hau indarrean jarriko da testua Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hamabost laneguneko epea igarotakoan.

4. *Presentación de las solicitudes y correspondiente documentación.*

Las solicitudes de ayuda se presentarán ante el servicio de atención del Ayuntamiento de Elgeta (Mendizaleen plaza, 20690 Elgeta), desde el momento de publicación de la convocatoria. Junto con la solicitud se presentarán:

- Hoja de solicitud, debidamente cumplimentada.
- Declaración jurada de las solicitudes de ayudas realizadas a otras administraciones o instituciones públicas o privadas, así como de las ayudas ya recibidas de las mismas.
- Copia del documento de identidad.
- Copia de la matrícula.
- Certificado del euskaltegi donde se han realizado los cursos. En el mismo se deberán recoger los siguientes extremos: si el interesado ha finalizado el curso o no, así como si lo ha realizado con el mínimo de aprovechamiento; porcentaje de asistencia al curso.

La acreditación del cumplimiento de sus obligaciones con el Ayuntamiento las realizará el Ayuntamiento de oficio.

El Ayuntamiento podrá solicitar al interesado la información complementaria que considere oportuno al efecto de acreditar la veracidad de los extremos expuestos en la solicitud. Junto con la solicitud el interesado deberá indicar que conoce todos los requisitos y que acepta en su totalidad las presentes bases.

En caso de que no se presente algún documento de los citados anteriormente, se le otorgará al interesado un plazo de cinco días al objeto de completarlo o rectificarlo. En caso de no realizar la subsanación, se considerará que rehúsa a la solicitud y sin más trámite, se procederá a su archivo.

5. *Procedimiento de otorgamiento de las subvenciones.*

Las solicitudes serán estudiadas por la Comisión de Euskara, convocada al efecto tras el transcurso del plazo de presentación de solicitudes. En caso de que se haya presentado la documentación requerida, si se considera procedente, los solicitantes recibirán la subvención.

6. *Cuantía de la subvención.*

La cuantía destinada al aprendizaje del euskara será la cuantía que el Ayuntamiento de Elgeta tenga destinado para ello en la partida presupuestaria correspondiente. Se procederá a la concesión de la ayuda económica entre todos los solicitantes en proporción a la totalidad del gasto acreditado por el solicitante. La ayuda concedida nunca superará el 80 % de la del gasto acreditado por el solicitante.

7. *Modificación de la subvención.*

En caso de modificación de las condiciones tenidas en cuenta para el otorgamiento de la subvención, y en caso de que se consigan ayudas en régimen de concurrencia por parte de otra institución pública o privada, se podrá modificar la resolución de otorgamiento de la subvención.

8. *Incumplimiento de las bases.*

En caso de acreditarse el no cumplimiento de alguno de los requisitos previstos, se podrá retirar la totalidad o parte de la subvención concedida; para ello, se concederá al beneficiario un trámite de audiencia y, en su caso, se adoptará la decisión de devolución de la subvención recibida.

9. *Normativa complementaria.*

En los casos no previstos en las presentes bases será de aplicación la Ley 38/2003, de Subvenciones.

Disposición final.

La presente Ordenanza entrará en vigor en el plazo de quince días hábiles desde la publicación de su texto en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.